



**MAHAI SEKTORIALA :
NEGOZIAZIOAREN EGOERA TAMALGARRIA**

Lan Hitzarmen berria negoziatzeko hainbat bilera, gehienetan antzuak, burutu ondoren Administrazioak orain arte ahoz esandakoa oraingo honetan idatziz helarazi digu eta LABen susmorik txarrenak baieztatzen direla esan dezakegu. Honako hauek izan dira Administrazioak mahai gainean jarritako gaiak:

Egonkortasuna, Lan Eskaintza Publikoak eta ordezkoen finkapena. Plantila organikoetan 1060 lanpostu gehituko lirateke, ondoren eta legealdi honetan 1500 lanpostu inguru LEP (OPE)en bidez ateratzeko asmoz. Urte osoko lanpostu hutsetan ordezkoen finkapen orokorra ezartzeko asmoa ere azaldu dute, lanpostua bakante irauten duen bitartean eta horretarako baldintzak betetzen duen heinean ordezkia ikastetxean finkatuta geratuko litzatekeelarik. Proposamenen Administrazioak ez du ezer esaten gaur egungo Egonkortasun akordioa mantentzeaz, eta CCOOek sartutako helegiteaz Tribunal Gorenak ateratako sententzia aprobetxatzen du gaur egungo egonkortasuna kolokan jarri eta desagerrarazteko. Ederki asko aprobetxatu dute sindikatu horrek irakasle euskaldunen eskubideen kontra aritzeko eta gaur egungo egonkortasuna zapuzteko erakutsitako maltzurkeria. LABek beti babestu du egonkortasun akordioa bere osotasunean eta horren luzapena eskatzen du. Irakasle egonkorren egoerak bere horretan jarraitu behar du, beren eskubide guztiak berretsiko direlarik. LABek, langileen eskubideak eta eskolen beharrak asetuko dituzten neurriak ezartzea exijitzen du eta ildo horretan egonkortasun akordioa bera osatuko lukeen eta lanpostu egonkorrak definituko dituen sistema ezartzearen alde egingo du.

Plantilak eta ratioak. Administrazioaren esanetan, gaur egun ba omen daude nahiko baliabide ikastetxeetan eta ondorioz ratioei eustea eta horretan aurrerapausorik ez ematea aurreikusten du, bi urteko geletako ikasle ratioak aztertzen ari direla aipatu badute ere. Orain DBH eta Batxilergoan egiten diren bikoizketak, aurrerantzean DBHko lehen zikloan ezartzeko asmoa erakutsi dute, beranduegi egiten direnaren aitzakiaz. Lanbide Heziketako talde mistoen (A/D) bikoizketa finkatuko litzateke eta Helduen Hezkuntza Iraunkorreko ikastetxeetan Orientatzaile figura ezarriko zen, 12 hasiera baten proiektu gisa eta ondoren 20/25era zabaltzeko asmoz. Curriculum Anitzeko taldeen finkapenaz ere hitz egin dute, baina irakasleen ordutegia 17/18 ordutara egokituz eta gaurko 14ak gaintuz. Kalitate arduradunaren figura ezarriko zen eta etorkinekin hizkuntza indartzeko irakasleen lanpostuak finkatuko lirateke, nahiz eta kupoaz edo baldintzaz ez duten ezer zehaztu.

Badira beste atal batzuk jorratu beharrekoak, baina beren gauzapena Batzorde Teknikoan burutu daitezkeenak, hala nola, katedradun kidegoaren ezarpena, kontserbatorioetako bateragarritasuna, seme-alabak hiru urte bete arte iharduna aldi baterako etetea... Ildo honetan, LABek eskatu du ikasturte hasierako antolaketa zein esleipenekin zerikusia duten gaiak berehala negoziatu behar direla Batzorde Teknikoan.

JARRAITZEN DU...



LABen ustez, bada garaia benetako negoziatioari ekiteko eta ikastetxeetan dauden behar eta egoera errealetatik abiatutako neurriak ezartzeko. Langileen lan baldintza duinak eta irakaskuntzaren kalitatea bermatzearen alde, Hitzarmeneko atal nagusietan, akordio baten ardatza osatzen dutenetan, aurrerapauso eraginkorrak negoziatu behar ditugu: lan baldintzetan ordezkoen homologazioa funtzionarioekiko, 55 urtetik gorakoentzat ihardun murrizketak lanpostuak sortuz, HNP eta etorkinen inguruko prestakuntzak klaustro osoari zabaldu, irakasle ibiltarien lana arautu eta duindu, behar errealetatik abiatutako plantilak ezarri ikastetxeetan eta figura guztiak eskola txikietan ere islatzea, euskalduntzean eta lanpostuen hizkuntza perfilazioan aurrerapauso eraginkorrak ezarri...

Negoziatio kolektiboa geure lan baldintzak zein kalitatea bermatzeko langileok dugun tresna eraginkorra da, baina Administrazioak adierazitako borondate ona erakutsi nahi badu, hitzetatik planteamendu zehatzak egitera eta benetako aurrerapausoak ematera pasatu beharko du, ekintzen bitartez adierazten baita borondatea. Adi egon beharko dugu, geure helburuak lortzeko presio bideak erabiltzera eta mugitu beharrean aurki baikaitezke eta denon inplikazioa ezinbestekoa izango dugu bide horretan.

ESKOLA EGUTEGIA. 2006- 07 IKASTURTEA

Euskal Herriko jendartean gero eta nabariagoak dira Lan egutegi propio baten aldeko jarrerak eta, ondorioz, inposaturiko jai iraingarririk ez onartzeko jarrerak areagotuz doaz. Hezkuntza Sistema Propioaren bidean eta ikastetxeen autonomiari erreparatuz egutegia osatzerakoan ere ate batzuk irekitzen joan behar ditugu, bertako kideak eragile zuzenak sentitu daitezten.

Ildo horretatik, datorren ikasturteko eskola-egutegia osatzea tokatuko zaigun une honetan, LABek proposamen bat luzatu du eta gai horretan eragile zuzenak izatera animatzen zaituzte. "... lan-egutegian jai egun gisa azaltzen direnak **edota O.O.G.ak beren ordezkari proposatutakoak, jai egun hartuko dira eskola-egutegian...**"

LABetik, inposaturiko jai iraingarriak alboratu eta geure egutegiko jai egunak hartzera animatzen zaituztegu, martxoaren 8a edo abenduaren 3a bezalako egunak lehenetsiz.

<http://www.labsindikatua.org/sektoreak/irakaskuntza/publika>

Araban	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparaldean
Bueno Monreal, 10 Behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 Irakaskuntzaaraba@ labsindikatua.org	Rekalde zumarkalea,62 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 Irakaskuntzabizkaia@ absindikatua.org	San Bladi 1, behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 Irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatua.org	M.Zelaieta 75, 2.A 31014 Iruñea Telf.: 948 382 474 Faxa.: 948 221 276 Irakaskuntzanafarroa@ labsindikatua.org	13 Marengo Karrika 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 baiona@ labsindikatua.org